

Mila jai batera

Maidor Iantzi Goienetxe

Mila jai batera Bilbon, Korrikari errematea emanez». Izenburu horixe zuen 1980ko abenduaren 7ko “Egin”-ek, euskararen aldeko ekimen erraldoiaren lehendabiziko edizioan. Azpititulua, honakoa: «Partizipazio ezin hobea izan den arren, uste baino diru gutxiago». Zazpi probintzietan barna 200.000 korrikari bildu zirela kontatzen da kronikan, eta ezin konta ahala herri erakunde, kargudun eta lagunek hartuko zutela parte hirian eginen ziren azken dozena kilometroetan, testiguaren barreneko mezua irakurri ondotik mila adarreko besta nagusi

bati hasiera emanez. Kasik 40 urte igaro dira, eta Korrikak lehen aldian bezala hunkitzen gaitu. Kazetari bezala bizi izan dudan esperientziarik intentsu eta politena izan da duela sei eta lau urteko edizioetan hamaika egunak furgonetako lagunekin partekatzea: abiatzeko urduritasuna, jendetzaren bultzada, dena ongi ateratzeko ardura... Berehala ekitaldian barneratzen zara eta desagertu egiten da gainerako guztia. Halakoa da euforia, kosta egiten dela gauean lo hartzea, Korrika bezala zure burua ere ez delako gelditzen. Telefonoz non zauden galde-

tzen dizutenean hirutan pentsatu behar duzu etengabeko mugimendu horretan kokatzeko, bidean baitzaude eta bertan hainbertze jende, herri eta txoko ezagutzen dituzu... Eta horietako bakoitzak, kilometro bakoitzak, bere historia du. «Kilometro guztiek dute garrantzi bera». Horixe, iltzatuta gelditu zitzaidan AEK-koen erranetako bat. 1980an bezalaxe, bidean goaz, bertze etapa batean, konplizitatea sentituz, helburua ahantzi gabe (kontzientzia suspertzea eta euskaltegientzat dirua biltzea), Korrika noizbait ospakizun hutsa izanen den esperantzan. •

Pelix Sarasola Alzaga

Xabier Mikel Errekondo

Usurbilgo Andrenausi baserrian jaio hintzen 40. hamarkadan eta pasa den abenduan zendu. Tona samin eta maitasun. Sukaldari lanean eman dituk urte gehienak, itsasontzietan, Beti Alai, Txartel edo Txitxardin Beltza jatetxeetan ederki dastatu dizkiagu hire eskuek prestatu platera gutziak. Herriko Baba Txikiaren Kofradiaren sortzaileetakoa, handikerietatik beti urrun nola proiektu xume eta hurbiletan murgilduta. Laudorio hitzak baino ez dizkiat, eznahikoak guztiak. Sukaldari profesional aparta, gozatu egin duk on-

tzi artean sutondoan, baina nagok batez ere lagunarteko giroan izan haizela zoriontsu. Gastronomía artean aditua, makina bat elkarteetako sukaldeetan maisu eta jostari aritua. Andazpe elkarteak mahaletan gaur bai eta bihar ere bai elkartu dituk lagunak, bibote urdinduaren txapelpeko irribarre bihurriarekin. Girokoa eta lagunartekoa, hartu-eman naturalekoa, hurbilekoa. Gauza xume eta benetakoen maitale, erruz dituk topatu bigarren herri bilakatu duken eta herritartzat hartu hauen Habana bizian, Felito. Usurbilgo saltsan nola Kubako salsan.

Irakurle, Habanara bahoia ez harritu norbaitek marmitakoa prestatzen badink, Felitoren esentzia sukalde ugarietan zebilenk-eta; eta kerik sumatzen badunk lasai, euskal kubatarren aita-pontekoa dunk-eta bibote urdindu-pean irribarretsu Coibatzarrari tira eta tira. Felito, jarraitu sukalde, son, bolero musika eta dantza giroan gozatzen lagunartean, Coiba ahoan... Milesker. Itzuliko diagu bidaia eta krokodiloen uhartean elkartuko gattuk berriro Felito! •